Jakin filosofatzen



«Arkitektura txibato bat da»

Ula Iruretagoiena Busturia

◊ Arkitektura eta pentsamendu filosofikoa; non ukitzen dute elkar?

Bizileku bat eraikitzeko errealitate jakin bat ezagutu behar bada, errealitatea ezagutzeko klabeak filosofiak eskain ditzake. Arkitektura egitearen ekintza bat izanda, filosofiak ulermen marko bat eskain diezaioke horri, ekintzak sortu nahi duen eraldaketa kontestualizatzeko, adibidez.

◊ Zuk nola maite duzu pentsatzea espazioa?

Identifikagarria ez den baina egotearen esperientzian eragiten ari den ongizate geruza bat bezala.

◊ Zer dio gure herrietako arkitekturak gure garaiaz?

Arkitektura txibato bat da: garaian garaiko balio sistema eta bizimodu eredu bat erakusten ditu. Eskura dagoen materiala, pentsatu zaion erabilera, teknologia, zeri eskaintzen zaion arreta eta zeri ez, zer zaintzen den eta zer ezkutatu...

◊ 'Plaza' esaten badut, zer datorkizu?

Gizarte baten egongela.

◊ Eta 'etxe' esaten badut?

Intimitate-gordailuaren ilusioa.

◊ Zein da egiazko hitz gakoa arkitekturan?

Ekologia. Eraikuntza eragile biologiko askorekin harreman konplexuan dagoela ulertu behar da; arkitekturak harreman horiek diseinatu behar ditu.

◊ Zein espazio berri behar lituzke mundu berri batek?

Denbora galtzeko espazioak.

◊ Eta mundu zaharraren zein egia?

Behar-beharrezkoarekin soilik eraikitzeko arreta eta inteligentzia.

◊ Zein litzateke denbora galtzeko eraikin bat?

Behin-behinekotasuna eta kaosa dramarik gabe hartzen dituen bat.

◊ Superbotere bat: hagaxka magiko batez zerbait eraits dezakezu... Zer?

Itsasoaren adinako espazioa hartu duten txalet urbanizazioak.

◊ Euskal Herria 2056: amesgaizto bat.

Eusko Jaurlaritzak adimen artifizialarekin eta eraikitzaileekin elkarlanean arkitektura diseinatzeko eskumena hartu du.

◊ Edertasuna. Zer garrantzi dauka honetan guztian? Jendearen egunerokoan?

Urbanitatea itsusi izatera etsitu gara, eta, edertasuna bilatzeko, berdea den horretara desbideratzen dugu begirada. Edertasunaren, erosotasunaren eta prezio merkeen artean erabaki behar izatekotan, edertasunak galtzen du gehienetan. Estetika zainduak luxuaren kategoria hartzen du orduan.

◊ Euskal Herria 2056: amets eder bat bete da.

Petroliotik eratorritako material toxikoak gure eraikinetatik suntsitu dira eta artisau belaunaldi bat jaio da eraikuntzari lotuta.



Itziar Ugarte Irizar